

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak izena emateko epea zabaldu du langabeentzat antolatu diren 98 prestakuntza-ikastaroetarako

Izena emateko epea maiatzaren 28an irekiko da eta ikastaroak ekainetik aurrera emango dira

Jueves, 24 de mayo de 2012

Maiatzaren 28an izena emateko epea zabalduko da [Nafarroako Enplegu Zerbitzuak \(NEZ\) antolatutako enplegurako 98 prestakuntza-ikastaro](#)etarako, langabeentzat bereziki prestatu direnak.

Ikastaroak honako espezialitate hauetara zuzenduta daude: pertsonen etxean eta erakundeetan ematen zaien gizarte- eta osasun-arreta, giza baliabideen kudeaketa integratua, lorezaintza, salmentako jarduerak, galdaragintza, soldadura, makina-programatzailea CNCekin, jatetxe eta tabernetako oinarritzko operazioak, informatikako segurtasuna, web diseinatzailea edo ile-apainketa. Izena [NEZen enplegu-agentzi](#)etan edo Nafarroako Gobernuaren [erakunde horren webgune](#)an eman daiteke.

Gainera, irailaren 3an urritik aurrera emango diren 19 ikastaro berrientzako izen-ematea zabalduko da. Guztira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak era honetako 115 ikastaro antolatu ditu; 18.414 ordu dira orotara eta 2.170 pertsona hartzea aurreikusten da. Xede horretarako, Nafarroako Gobernuak 2.896.890 euroko gastua bideratu du.

Ikastaro horiek homologatutako prestakuntzako 21 zentzorekin elkarlanean garatzen dira, eta haiek helburu horretarako deialdi publiko batean parte hartu dute: Nafarroako Marketin kluba (27 ikastaro), IFES-UGT (10), Salesianos (9), Formación Actual (9), Forem Navarra (8), Nafarroako Gurutze Gorria (8), Prestakuntza eta Enplegu Sistema (6), Eraikuntzako Lan Fundazioa (5), Elkarre Fundazioa (5), CIAS Hizkuntzak eta Informatika (4), Ile-apainketa eta Moda eskola (4), Iruñeko Udala (4), Prestakuntza Politeknikoko Zentroa (3), Tafalla Informatika Zentroa (2), Ramiro Mata (1), Ilundáin Fundazioa (1), Eva Espuelas Pilates Zentroa (1), Nafarroako Industria Elkarre (1), Cuatrovientos institutua (1) eta CENTA (1).

Funtsezko gaitasunak

Deialdi honek 24 ikastaro barnean hartzen ditu [funtsezko gaitasuneko ebaluazio-proba](#)k egiteko, eta prestakuntzarik gabeko pertsonentzat direnak ondoren 2. eta 3. mailako profesionaltasun-ziurtagirien ikastaroetan parte har dezaten. Programatutako ikastaroak (20 2. mailakoak eta 4 3. mailakoak) funtsezko gaitasunekoak dira Gaztelanian, Matematikan, Zientzietan, Teknologian eta Gaitasun Digitalean.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren deialdi hori gehitzen zaio -

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan-, apirilean argitaratu ziren lanbide heziketako zentro publikoetako enplegurako [28 prestakuntza-ikastarori](#), eta Foru Komunitateko geografia guztian banatu zirenak.